



## ENPLEGU PUBLIKOAREN EREDU BERRIA ERAIKITZEKO LEGE PROPIOA

Datorren irailaren 11n Jaurlaritzatik Enplegu Publikoaren Euskal Legearen zirriborroa aurkezteko bilerara deitu gaituzte sindikatuok.

LABek aspaldi adierazi du zerbitzu publikoetako langileon lan baldintzen eredia, garrantzi handiko arrazoiengatik ez dugula gogoko: espainiar araudiak finkatutako eredia erreproduzitzen du, pribatizazioari eta prekarietateari ateak parez pare irekitzen dizkio, langileon parte hartze, ekarpen gaitasun eta motibazioari ateak itxi, langileon arteko bereizketa sustatzen du, euskarazko funtzionamendua galarazi...

Gauzak horrela, **LABek Enplegu Publikorako Lege Propioaren beharria aldarrikatu egiten du.**

Alabaina, LABen ustez lege berri hau egiteko prozeduran, **gutxieneko joko-arau** batzuk bermatu behar dira:

- **Legearen zehaztapena bertoko eragile sindikal eta instituzionalon arteko gogoeta eta adostasunen ondorioa izatea**, bestelako lege-esparru batzuetako mugapenik gabe, "EBEP - Estatuto Básico del Empleado Público" delako oinarrizko lege estatalak ezartzen dituen mugak aintzat hartu gabe.
- Zerbitzu publikoetako **langileon lan baldintzak alde bakarrez ezartzeko Administrazioak duen botereari bukaera ematea**, alegia, negoziatzeko eskubideari ateak parez pare irekitzea.

LABek hauxe planteatuko dio Jaurlaritzari lehen bilera honetan: eztabaidaren joko arauak gutxieneko horiek barnebiltzen dituen, ala beraien asmoa EAEn EBEParen garapena egitea den.

LABentzat galdera hau argitzea oso garrantzitsua da, batetik legearen negoziazioa gutxieneko baldintza demokratikoetan egin ahal izateko, eta bestetik, LABek defendatzen duen enplegu publikoaren bestelako eredia eraikitzeo oinarrizkoa delako. Azken batean, negoziazio ariketa gure ezaugarri eta gogoeta propioetatik abiatuta egin, ala EBEPak ezartzen duen mugetatik abiatuta egin, emaitzak oso ezberdinak izan ahal baitira.

Jaurlaritzak ematen digun erantzunaren arabera zer egingo dugun baloratuko dugu. Eta era berean, gutxieneko joko arau demokratikoen baitan negoziatzeko borondatea dutela adierazten badigute praktikan keinuak egin ditzatela ere exijituko diegu, azken batean negoziazio hau lideratzen ari den gobernua baita Hego Euskal Herria osoan murrizketen inposizioan administrazioerik aktiboena.

## osteguna 11n mobilizatu egingo gara!!!